



## HEZKUNTZA SAILAK LEKUALDATZE- LEHIAKETETARAKO ETA BIRBAREMAZIOTARAKO PROZEDURAK IREKIKO DITU

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du Hezkuntza Saileko langileen kudeaketaren eremuko zenbait prozedura administratibori berrekitea edo hasiera ematea. Prozedura horiek bertan behera gelditu ziren joan zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu eta alarma-egoera ezarri zelarik, Covid-19k eragindako osasun-larrialdiari aurre egiteko.

Gaur onartutako akordioaren ondoren berrabiatzen edo hasten diren prozeduren artean daude, irakasleen hainbat kidegoren lekualdatze-lehiaketak, bai eta birbarematzeko administrazio-prozedurak ere.

Errege Dekretu horrek (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak), besteak beste, sektore publikoko erakundeetan prozedurak izapidetzeko epeak etetea ezartzen zuen, eta epe horien zenbaketa geroago hasiko zela adierazten zuen. Aurrerago berriz, martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak (gorago aipaturikoa aldatzen duenak) dio, sektore publikoko erakundeek erabaki ahal izango dutela, arrazoituta, interes orokorra babesteko edo zerbitzuen oinarriko funtzionamendurako ezinbestekoak diren administrazio-prozedurekin jarraitzea.

### **Lekualdatze-lehiaketak**

Araudi hori kontuan hartuta, Gobernu Kontseiluak baimena eman du gaur goizean, honako lekualdatze-lehiaketen prozedura hauekin jarraitzeko, 2020ko maiatzaren 13tik aurrera:

- Lekualdatze-lehiaketa, autonomia-erkidego mailakoa, unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako funtzionarioena, EAEko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko. Lehiaketa hori 2019ko azaroaren 15eko Aginduaren bidez deitu zen.
- Lekualdatze-lehiaketa, Euskadiko hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeetan izaera bereziko irakasle-lanpostuak betetzekoa. Lehiaketa hori 2020ko martxoaren 4ko Aginduaren bidez deitu zen.

Ondorioz, bi administrazio-prozeduretan etendako epeei berrekingo zaie.

### **Birbaremazio-prozedurak**

Era berean, eta motibazio berberarekin, Eusko Jaurlaritzak onartu du, honako beste prozedura hauek hastea, 2020ko maiatzaren 13tik aurrera:



- Hezkuntza Sailaren garbiketa eta sukaldeko langileen zerrenden birbaremazioa.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ari diren ikastetxeetan urteroko esleipena egiteko prozedurak hastea, Sailaren lan-legepeko hezkuntza langileen artean: lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa dutenen artean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 12an